

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2011n erretiroa hartutako edo hildako 574 funtzionario omendu ditu

*Barcina Lehendakariak funtzionarioen lana eskertzeaz gain, nabarmendu ditu haien profesionaltasuna eta Nafarroako herritarrei emandako zerbitzuan eredugarri izatea*

Lunes, 13 de febrero de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulo gaur buru izan da Nafarroako Gobernuak iaz erretiroa hartu edo hildako Foru Erkidegoko Administrazioaren 574 funtzionariori egin zaien omenaldian.

1985. urtetik egiten den ekitaldia "Baluarte" Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorium-ean egin da, eta bertan izan dira lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez Alli eta Funtzio Publikoko zuzendari nagusi Gregorio Eguílaz Gogorza.

Bere agerraldian, Nafarroako Lehendakariak funtzionarioei urte hauetan guztietan egindako lana eskertu die eta aitortu die, Foru Erkidegoaren aurrerabidean laguntzeaz gain, eredugarriak direla langaitasunean eta herritarrei zerbitzua emateko orduan.

### Funtzio publikoaren defentsa

Barcinak nabarmendu du ere, Nafarroak beti bere funtzionarioen zerbitzuak beharko eta baloratuko dituela, eta enplegatu publikoei aipua kendu nahi dieten guztiekin bere desadostasuna agertu du. Izan ere, funtzionario

gehienekiko miresmena erakutsi du, egunero-egunero Foru Erkidegoaren ongizate eta garapenaren mesedetan beren profesionaltasuna eta buru-belarri aritzea erakusten dutelako.



Barcina Lehendakaria, Jiménez lehendakariordea alboan duela, omenduetako bati diploma ematen.



Omendutako funtzionarioak eta laguntzaileak.

Hala ere, Lehendakariak azpimarratu du aldaketa-garai hauetan funtzio publikoaren defentsa onena Administrazioetik bertatik sortu behar dela ahalik eta eraginkortasun handienarekin, bikoiztasunak kenduz eta baliabide ekonomikoen kudeaketa onarekin.

Alde horretatik, Barcinak iragarri du laster batean Nafarroako Gobernuak lan egiten ari den neurrien berri emango duela Foru Administrazioa eraginkorragoa izan dadin.

### **Intsignia eta diploma bana**

Omenaldia jaso duten funtzionarioek intsignia ba jaso dute Foru Erkidegoaren ezkuarekin eta baita diploma bat ere; diploma horretan Nafarroako Gobernuaren aitortzea ageri da beren lana egikaritzen buru-belarri aritzeagatik eta erakutsi duten profesionaltasungatik.

Gaur goizean omendutako 574 enplegatu publikoetatik, 306 emakumezkoak dira eta 268 gizonezkoak. Halaber, haietako 20 hil egin dira beren lan-bizitza amaitu gabe edo jada erretiroa hartu ondoren.